

UNIBERTSITATE SISTEMA ALDATU EGINGO DA DATORREN IKASTURTETIK AURRERA; BOLOGNAKO ADIERAZPENA INDARREAN SARTUKO DA, ETA HARI JARRAITU BEHARKO ZAIZKIO UNIBERTSITATE GUZTIAK, DERRIGORREAN. NOR BERE ERRITMOAN EGOKITUKO DA SISTEMA BERRIRA, ETA GAUR-GAURKOZ, IKUSMINA ETA ZALANTZA DIRA NAGUSI

Unibertsitatea, bidegurutzean

U

nibertsitatean lehenengoz matrikula egin dutenentzat, dena berria izaten da, oro har; inguruak, giroak, heziketa-metodoak... zerikusi gutxi izaten dute ordu arte ezagutu dutenarekin. Egokitu egin behar izaten dute, eta horrek denbora eskatzen du. Aurten unibertsitatean hasiko direnentzat, gainera, are gogorragoa gerta daiteke jauzia, ikasturte berezia baita aurtengoa: unibertsitate sistema bera ere egoera berri baten aurrean dago, eta egokitze aldi bete-betean. Goi mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura moldatu beharra dauka, edo, bestela esan, Bolognako Adierazpena deitzen den horretara. Orain arte, nagusiki lizentziak eta diplomak eskaintzen zituen unibertsitateak, baina 2010-2011 ikasturtetik aurrera desagertu egingo dira horiek, eta graduak eta masterrek hartuko dute haien lekua. Zalantza, eztabaida eta ikusmin ugari sortu du ekimenak (1999. urtean jarri zituzten lehen oinarriak), eta esan liteke bidegurutzean dagoela unibertsitatea: orainaldi nahasi samarra ikusten zaio eta etorkizuna inoiz baino irekiagoa.

Espanian 75 unibertsitate daude, eta bakoitzak bere estrategiak finkatu ditu trantsizio aldi honetarako. Batzuek dagoeneko guztiz egokitu dute euren eskaintza, eta beste batzuek mantsago joatea erabaki dute, eta azken ordua arte itxarotea titulazioak moldatzeko. CONSUMER EROSKI-
k urtero berritzen du Unibertsitateen Gida Praktikoak (www.universidades.consumer.es), eta ikusi dugunez, honako unibertsitate hauek moldatu dute euren heziketa-eskaintza Bolognak ezartzen dituen arauetara (gradu eta graduondokoetara): IE Unibertsitatea (Segovia), Madrilgo Urruneko Unibertsitatea (UDIMA), Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta San Jorge Unibertsitatea (Zaragoza). Beste zenbait unibertsitatek, aldiz, oraindik ez dute eskaintzen gradu titulurik (lizentzien eta diplomen pareko dira). Zortzi daude egoera horretan: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU), Salamancako Unibertsitate Pontifizioa, Elxeko Miguel Hernández Unibertsitatea, Valladolideko Unibertsitatea, Las Palmasko Kanaria Handiko Unibertsitatea eta Avilako Unibertsitate Katolikoa.

Datorren ikasturterako (2010-2011), unibertsitate guztiek egokituta egon beharko dute Europako esparrura, ordurako egon behar baitu amaituta Bolognako Prozesuak. Unibertsitateei ez ezik, ordea, ikasleei ere eragingo die egoera berriak, bai aurten matrikulatu direnei eta bai etorkizunean egingo direnei.

AKABO LIZENTZIAK ETA DIPLOMAK

Eredu berriak izena aldatuko die goi mailako ikaske-
tei, eta ikusi batera, hori da berrikuntzarik nabarmene-
na. Unibertsitarioak, ikasketak amaitzen dituztenean,
hemendik aurrera ez dira izango lizentziadunak edo
diplomadunak (Biologiako lizentziaduna edo Gizar-
te Heziketako diplomaduna, adibidez); gradudunak
izango dira (Kazetaritzako graduduna edo Kimikako
graduduna, esaterako). Bolognak hiru maila edo ziklo
ezartzen ditu Europako unibertsitate-ikaske-
taz: Gradua, Masterra eta Doktoregoa. 2010-2011 ikas-
turtean, unibertsitateek ezingo dute eskaini honako
titulu hauetako bat bera ere lehenengoz matrikula
egiten dutenentzat: lizentziaduna, diplomaduna, ar-
kitektoa, ingeniaria, arkitekto teknikoa eta ingeniari
teknikoa. Araudi berriak, hala ere, ez die eragingo ti-
tuluak Bologna Plana indarrean jarri baino lehenago
lortu dituztenei. 2007ko urriko Errege Dekretuak zera
dio (Unibertsitate-Ikasketak Antolatzeari buruzkoa da):
errege dekretu hori indarrean sartu aurretik lortu diren
unibertsitate-titulu ofizial guztiek bere horretan atxi-
kiko dute balio akademikoa eta profesionala ere bai.

Ikasketak egiteko ze unibertsitate aukeratu-
den, ikastaroaren prezioa 30 aldiz garestiago
ere izan liteke

Ikasturte hasiberri honetan, beraz, trantsizio garaian
den unibertsitatea aurkituko du ikasleak; unibertsitatea
aroz aldatzen ari da, orain arte izan denetik etorkizu-
nean izango dena. Nola jokatu behar du hor ikas-
leak? Legedi berrira moldatuta dauden ikasketetan egin
behar du matrikula edo ez? Hala eginez gero, etorkizun
espezializatuagorantz doan bidea hasiko du eta Euro-
pan homologatua egongo den titulu bat eskuratuko du.
Hori izan daiteke alde ona. Txarra, berriz, honako hau:
sistema berria oraindik ez dela guztiz perfektua edo
osatua.

Itxura guztien arabera, lan merkatuak Europako plan
berriaren alde egingo du, eta arau berrietara moldatu
diren unibertsitateen tituluak lehenetsiko ditu hurren-
go urteetan. Hain justu, ikuspegi hori gailendu izana
salatzen dute zenbait ikasle kolektibok eta ikasle gutxi
dauzkaten titulazioetako taldeek: hezkuntzako eskaini-

tza produkzio-sektoreen beharretara moldatzea. Haien
ustez, “ikasgelak merkatu bihurtzea” da hori, eta ikas-
keta batzuk desagertzeko bidean jartzea. Unibertsitate-
erakundeen iritziz, “ikuspegi desegokia” da hori.

GUTXIENEZ, LAU URTEKO IKASKETAK

Tituluen izenari ez ezik, ikasketen iraupenari ere era-
giten dio goi mailako ikasketen berregituraketak.
Bologna Prozesua ezartzen denean, ez da izango hiru
urteko ikasketarik. Ondorioz, titulazio batzuetan luza-
tu egingo da prestakuntza aldia; beste batzuetan, be-
rriz, murriztu egingo da, eta batzu-batzuk desagertu
ere egingo dira, edo, behintzat, ez dira izango sistema
tradizionalean izan diren bezalakoak.

Unibertsitate-ikasketen lehen maila edo zikloa Gradua
izango da aurrerantzean; lau urteko ikasketak izango
dira, eta horrek esan nahi du Europako 240 kreditu
lortu behar direla (ECTS deitzen zaio kreditu sistema
horri, *European Credit Transfer System*). Hori ere al-
datuko baita, kreditu sistema, alegia. Orain, 10 eskola
orduk kreditu bat ematen dute, baina ECTS sistema-
rekin, 25-30 ordu beharko dira kreditu bat eskuratzeko.
Horrek ez du esan nahi ikasleak lan gehiago egin
beharko duenik. Eredu aldaketa bat da. Ebaluazioa
egiteko eta ezagutzak neurtzeko ardatz nagusia ez da
izango eskola orduetan ikasleak zer jaso duen azter-
tzea; orain, garrantzi handiagoa emango zaie norberak
egiten dituen lanei, ikaslearen ekimena eta autonomia
sustatzea baita helburua. Ikasketari ematen zaio gar-
rantzia, eta ez hainbeste irakaskuntzari. Horrexegatik,
ikasgelan ematen den denbora aintzat hartzeaz gain,
ikasgelatik kanpoko lanari dagokiona ere hartzen da:
ikasten, tutoretzetan, lanak egiten, mintegietan parte
hartzen... Kreditu-eredu berri horrekin, gainera, arazo
handi-handi bat konpondu nahi dute: Europan bana-
tzen diren tituluak bateratzea, homogeen bihurtzea
eta homologatzea (hori oso zaila zen orain artean).

Gradu ikasketak hasi ahal izateko, orain arte bezala,
batxilerr titulua edo baliokideren bat eduki behar da
eta unibertsitaterako hauta-proba gainditu. Graduko
irakaskuntzen bidez, ikasleak prestakuntza orokorra
beregantatuko du, baita jarduera profesionalean aritu
ahal izateko oinarriak ere. Gradua amaitutzat eman
ahal izateko, lan bat aurkeztu behar du ikasleak, gu-
txienez 6 kredituren balioa izango duena eta 30en ba-
lio gehienez (240 ECTS horien barne daude). Zenbait
ikaske-
taketak, hala ere, Arkitekturak edo Medikuntzak,
esate baterako, araudi berezia dute Europan, eta 240
ECTS kreditu beharrean, 300 behar izaten dira, eta lau
urte ez, baina 5.

>



BOLOGNA PROZESUA, GALDERAK ERA ERANTZUNAK

Aldaketa handiak gertatzen direnean
edo egiturazko berrikuntzak abian
jartzen dituztenean, mesfidantza eta
zalantza handiak sortzen dira han eta
hemen, eta Bolognako Adierazpena-
rekin ere horixe gertatu da. Titulazio
jakin batzuetako ikasle eta irakasleek
agertu dute kontrakotasun gehien,
Bolognak desagerrarazi egingo
dituelakoan (filologia batzuetakoek
eta Artearen Historiakoek, batik bat),
baina ez da eremu horietara mugatu,
eta hedadura handi samarra hartu du
zenbait lurraldetan. Unibertsitateek
eta Espainiako Hezkuntza Ministerio-
ak erantzun beharrean ikusi dute be-
ren burua, eta honako azalpen hauek
eman dituzte Europako esparru
berrira egokitzeak ekarriko duenaren
inguruan:

Zer gertatuko da egungo tituluekin?
Egungo tituluek ez dute galduko ez
baliorik eta ez ofizialtasunik. Horien
lan-aukerak ere ez dira mugatuko,
nahiz eta ikasketen eta tituluen
egiturak moldatu. Horixe esaten du
Unibertsitate-Ikasketak Antolatzeko
Errege Dekretuak, 2007ko urrian
onartuak; testu horrek ezarri zituen
oinarriak Espainiako unibertsitateak
behar bezala egokitu zezaten euren
eskaintza Goi mailako Hezkuntzaren
Europako Esparrura.

**Goi mailako Hezkuntzaren Europako
Esparruak eraginik izango du egun
unibertsitatean ari direnentzat? Izan-
go da modurik ikasketa-plan zaharra
utzi eta Bolognako Planeko gradu
batera aldatzeko?**

Karrera zein ikasketa-planekin hasi
duten, hareekin jarraitu ahal izango
dute ikasleek. Unibertsitateak, beraz,
eragozpenik gabe amaitu ahal izango
dute euren ikasketa-plana, eta ez zaie
aldatuko ez ikasketen egiturarik, ez
edukirik eta ez garapenik.
Nolanahi ere, lehenagoko unibersi-
tate-arauen mende dauden ikasketak
egiten ari direnek aukera izango dute
ikasketa berrietan hasteko, baldin eta
unibertsitateak baimena ematen ba-
die (1393/2007 Errege Dekretuak eta
unibertsitatearen beraren araudiak
esaten duenari jarraiki, betiere).

**Gradu guztiak izango dira 4 urte-
koak?**

Egia esan, gradu guztiak ez dira
izango 4 urtekoak. Zenbait ikasketa
Europako araudi berezi batzuen men-
de daude, eta kreditu gehiago behar
izaten dira horietan. Medikuntzan
(360 ECTS), Albaitaritzan (300 ECTS)
eta Arkitekturan (300 ECTS + Gradu
amaierako Lana) kreditu gehiago

eskatzen dituzte, eta, ondorioz, 4 urte
baino gehiagoko ikasketak dira.

**Master bat egitea beharrezkoa izango
da lan merkatuan sartu ahal izateko?**

Kasurik gehienetan ez da izango
beharrezkoa. Gradu titulua duenak
prestakuntza egokia izango du lanean
aritzeko. Espainian araututa dauden
zenbait lan jardura egiteko, ordea,
beharrezkoa izango da master bat
egitea, hor lortzen duten prestakun-
tza ezinbestekoa baita. Hori gertatzen
da, esaterako, Abokatzarekin, Goi
mailako Ingeniaritzekin eta Bigarren
Hezkuntzan ariko diren irakasleekin.

**Bekak desagertu egingo dira eta ho-
rien ordezkariak emango dituzte
ikaske-
taketak finantzatzeko?**

Bolognak ez du ezartzen inolako
irizpiderik beken inguruan. Errenta-
mailegu deitzen direnek -2007an
sortu zituzten- beste kontzeptu
bat adierazten dute, eta ez dituzte
ordezkartzeko egungo bekek (garran-
tziak da hori kontuan hartzea).
Mailegu horiei esker, errenta-mugak
gainditu eta bekarik jaso ezin duen
ikasleak aukera du Masterra ordaindu
ahal izateko, eta behin lanean hasita,
itzuli egingo du diru hori, interesik
gabe.



MASTERRAK ETA DOKTOREGOIA ERE ALDATUKO DIRA

Gradu ikasketak bukatu dituen ikasleak bi aukera ditu: lan bila hasi edo ikasten jarraitu eta graduondoko bat egin (master deituko zaie orain). Masterrek ikasturte bat edo bi iraungo dute (60 eta 120 ECTS kreditu artean), ikasketa plan bakoitzaren arabera; orain arte, ematen zituen ikastegiak soilik aitortzen zien ezagutza ofiziala masterrei, baina aurrerantzean titulu ofizialak izango dira. Masterrak bi eratakoak izango dira: lan arlokoak edo ikerketa arlokoak. Lan arlokoetan, lanbide batean aritzeko prestatzen dute ikaslea, eta ikerketa arlokoetan, doktoregoa egiteko. Eta doktoregoan ere berrikuntza ekarriko du Bolognak: ezinbestekoa izango da Master titulu bat edukitzea unibertsitate-ikasketen hirugarren maila edo zikloa egin eta doktore titulua eskuratzeko. Zehazki, Europako 300 kreditu beharko dira, gutxienez, doktoregoko ikasketei ekin ahal izateko.

ZENBAT DIRU BEHAR DA LEHEN URTEAN?

Iraila eta urria hilabete gogorak izaten dira etxeko ekonomiarentzat. Oporren ostean, ikasmateriala erosi behar izaten da eta, unibertsitateak, eskolako matrikulak ere ordaindu behar izaten dituzte. Sistema publikoak ditu matrikularik apalenak, baina ezin esan horiek ere txikiak direla; unibertsitate pribatuetan, berriz, askoz handiagoak dira (30 aldiz handiagoak ere bai). Arkitektura egiteko, adibidez, 650 euro kostatzen da lehen urteko matrikula Malagako eta Sevillako unibertsitateetan; Segoviako IE Unibertsitatean, berriz, 18.000 euro.

Iaz eskaririk handiena izan zuten hiru titulazioen prezioak aztertzen baditugu (Espainiako Hezkuntza Ministerioaren arabera, Medikuntza, Erizaintza eta Haur-Irakasle ikasketak), hor ere alde handiak sumatuko ditugu unibertsitate publikoen eta pribatuen artean. Unibertsitate publikoetan, batez beste, 800 euro kostatzen da Medikutzako matrikula egitea (Unibertsitateen Gida Praktikoetik atera dugu datua), eta pribatuetan, berriz, 5.176. Erizaintza ikasketak egin nahi dituenak ere antzeko aldeak aurkituko ditu: 850 eurokoa da matrikula, batez beste, unibertsitate publikoetan, eta 6.000 eurokoa pribatuetan. Irakasle ikasketetan zertxobait txikiagoa da aldea, baina aipagarria hor ere: 900 euro kostatzen da publikoetan, eta 3.500 euro pribatuetan.

Aukera egiteko orduan, hala ere, kalitatea lehenetsi behar da, eta matrikularen kopuruak askotan ez du zerikusirik izaten horrekin, ez eta unibertsitatea publikoa edo pribatua izateak ere. //